

# + Anaitasuna

VIII URTEA - N.º 90

Depósito Legal SS. 1092—1959

Suplemento de la Hoja  
ANAITASUNA de Guipúzcoa

BAGILLA (6) 1962

## GAURKO GAZTEDIARI BEGIRA BAT JOC-ISTAK

"Egia, Justizia, sakrifizioa"

### JOC-isten Aita:

"Ez gara makiñak,  
ez animaliak,  
ez morroiak,  
personak,  
Jaungoikoaren Semeak baiño!

Geure biargi-izakereak errespetu geiago  
bear dau.

Onetaraxe berba egin eban Cardijn'ek.  
Ta nor da Cardijn au ba? Ondiño bizi da.  
Gitxi gora-bera larogei urte eukiko ditu.  
Beljickarra da. Ondiño gazte-gazte zala, aita  
il jakon. Ta il be mixeri gorrienean, billoi-  
zik, lurpean, miñatan idi zarren antzera to-  
ton egin ondoren, inoren jagontasun barik.  
Injustizi arek, bere aitaren gorputz igartu  
arek min emon eutson Cardijn gazteari. Ta  
asmo eder auxe artu eban: "Ni, biargiñak  
be Jaungoikoaren Semeak dirala agertute-  
ko, abade egingo naz. Neure bizi guztia  
biargiñen alde emongo dot". Eta esan eta  
egin: andik urte batzuetara abade egin  
zan. Ta *Jeunesse Ouvrière Chrétienne*  
(Kristiñau Gaztedi Biargiña) sortu eban.  
Mundu guztian zabaldua dago. Bene-bene-  
tan, ba, JOC-isten Aita dogu Cardijn.

### JOC-isten bideak:

Eta zer egiten dabe, ba, JOC-istak? Ze  
jente klase da au?

JOC-istak gazte miragarriak ditugu. Ta  
jakiña, gazteen indarrak eta amesetak on-  
to zuzenduten ba-dira, auxe bai konsolaga-  
rria. JOC-istak biargiña salbatu gura dabe,  
baina ez goiko zerua aginduaz bakarrik.  
2. Al izan ezkerro, gizonaren "zerua" lur

onetatik asi bear dau, persona moduan bi-  
ziaz, nor-beraren eskubideak eskuetan eu-  
kiaz. Komunistak lur au jo dabe zerutzat.  
Emengoa pasatuten danean, kitxo... Au on-  
tara balitz, galduak giñake diru-bakoak,  
naita edo naiezta mundu onetan atsegiñik  
barik bizi gareanok. JOC-istak ez dira ko-  
munistak. Ez. Eta au be esan bearrean ga-  
goz... JOC-istak auxe ikusi dabe argi ta gar-  
bi: gizona Jaungoikoaren Semea dala, per-  
sonea dala, eta asto zarrak ez dituen dere-  
tuen jabe dala. Ta biargiñak be "gizonak"  
dirala, "gizonak".

### JOC-istak biarrean:

JOC-ista gazte oneek biargiñak dozuz eu-  
rak be. Fabriketan eta edozein biar-tokie-  
tan eskuak zikinduten dabezenetariakoak.  
Sakrifizioa biotz osoz artuten dakienak.  
Egiari bildur gitxi izaten deutsoenak. Bi-  
zitzeari arpegia nasal emoten dakienak.  
Ekipoan egiten dabe biar. Zuzendari edo  
abade Konsiliario batek zainduten dauz.  
Sarritan batuten dira abade-konsiliarioagaz  
batera beren problemak, biargiñen proble-  
mak ikusi, epaitu eta askatuteko. Gauza  
guztieri azkatzea topau, emon... Aurrera  
gazteak! "Zorionekoak justiziaren gose di-  
ranak, beteak izango dira-ta".

Oba geure artean onetariko gazte fin as-  
ko ba-geunkoz! Onelako gazteakaz geure  
ezer-egin eziña beintzat beingoan uxatuko  
litzake-ta. Gaurko problemari azkatzea emote-  
ko bide bakarra auxe da: "egia eta just-  
zia" danen eskuetan jarrea. JOC-istakaz ba-  
tera, geuk be geure anai-biargiñen eskubi-  
deak errespetatuten erakutsi bear dogu.

# GAURKO GAZTEDIA

Norantz doia gure egunetan gaztedia? Ze bideak artu dauz gaztediak? Onetxeik dira bai erriagintariak eta bai gurasuek egiten dabiezan itaunak. Errietako gaizkillee edo kriminalen zenbatz edo estadiztikak garbi erakusten deuskue gazte asko, geroago ta geiago, bide ortara doiazela. Badira, ta ez gutxi gero, gure egunetan gazteen gaizkindutze ori bikoiztu egiñ dala diñoskuenak. Eta zer ete da ba gaurko gazteei bide orretara bultzarazten deuten ze ori? Biurritze orrek izango dauz bere eragintza edo influenziak. Ba lenen-lenengo jakin bear doguna da zeintzuek diran eragintza orreik, beuren erroko barren-barrenetik atera ta baztertuteko edo osakiñ edo botika egokien bategaz erretako. Bestela gertatuko jaku bermeo belarraz gertatzen dana. Belarrak atara ta, lurpeko belar orren aleak atara ez doguzalako, andik egunen batzuetara indar aundiagoaz irteten dala. Azkeneko urteeta biurritze onek abiada aundia artu dabela? Ikusi daiguzan ba zeintzuek diran abiada onen eragilleak. Auzi onetzaz idazten dabiezanak bitarikoak dirala diñoskue: *Bakoitzarenak* eta *leku edo anbiteak eraginda sortuten diranak*.

## BAKOITZARENAK

*Izatezko* edo *gorputzezko itxusitasuna* orretariko bat oi da. Askori beuren burua itxusia ikusteak, gizarteak begi okerrez begiratuten deusela pentsatu ta gizartetik aldentuta, leku ezkutueta ibilliarazi ta gizartearen aukako asmoak emoten dautse.

*Osasunik ezak* be batzuei, gizartean kalte besterik ez dabiela egiten pentsatuaz, seta biurritu ta gizartea ondo ikusi ezliña sortuten dautse.

*Oyzezko*, edo geiagoko edo gutxiagoko, *adimenak* be asko gaizkille biurtzen dauz. Geiegikeriak arroputzak eta gutxiagokeriak setatiak egiten dauz eta ez deusie gizar-teari ondo begiratzen.

Ta *biotz-ikarakor* edo *biotz-ikaratiakaitik* zer esango dogu? Badira umeak, jatorriz aulak, uskeri bategaz geixotuten diranak, beste batzuek, ostera, burdiña bera baño gogoragoak, ezegaitik be geixotuten eztirnak. Ba biotz-ikaratiei be orixe berorixe gertatzen jakie. Batzuek biotz-ikarakorrek dira ta biotz-ikarazko problemakaz izutu, gizarteagandik ayenatu ta ez dabie gizar-teagaz zer ikusirik eukitea gura izaten. Beurentzat gizartea ta bere legeak iguingarriak izaten dira.

## INGURU EDO AMBIENTEKOAK

Oneeri erriagintza edo kausa ambientalak esaten jake. Nork eztaki gaztediarer

biurrikerirako ze eragintza aundia daukien beuren bizileku-bazterrak edo geografikak beuren etxeak, eskolak, eskuetan darabildazan idaztiak, ziñeak eta beuren sendi edo familiak, e.a.? Auzi ontan inguruak edo ambienteak ze ikusi edo garrantzi aundia daukan ikasbide batek ulerraraziko deusue Gogoratu dezagun erriatik asao, mendi bateganean, basoetxe batean, ondo ezita maitakiro alkartuten dan famili bat. Ango seme-alabak, esate baterako euren guraso ta nebarrebakaz izan ezik, beste inogaz be ez daukie artuemanik. Uste dezue angu gazte bat irtengo dala aini gogor galazota dagozen eta ainbeste diru ematen daberen droga orreen salerostzalle? Ez. Zergaitik ez? Ez daukalako bide orretarako zaletasun emongo dutsanik, ez daukalako nork bide ortara bultzarazi. Orregaitik erriagintzak eraginda oingo erri aundietan zeinbat eta aundiagoak diran ainbat eta gaizkillee edo kriminal geiago aukitzen dirala azken urteetako zenbatzak erakusten deuskue. Erri eragintza edo influentzi sozialak ze ikusi aundia dauko oingo errien zabarkeriagaz. (jarraituko dau)



# ZER DIÑO ZORTZIGARREN AGINDUAK?

## 1.—Murmuraziñua pekatua da

Benetako kristiñautasuna biotzean da-roarentzako, pekatu guztiak dira gorroto-garriak. Baiña bada Jaungoikoaren Legeko Aginduetan aparteko eskari bat egiten daben agindu bat: Zortzigarren agindua. Ona amen zer dirauskun agindu onek: "Guzurrezko testigutzarik ez deutzazu iñori ezarriko"...

Agindu oneri, geinetan beintzat, bear daben inportantzirik ez jako emoten. Zer da-ta-ta? Agindu onen kontra pekatu astunik egin daitekenik ez dalako pentsetan. Eta zu ezta egia: agindu onen kontra, beste aginduen kontra legez, pekatu astunak egin daitezke, eta zoritxarrez!, pekatu astun asko egiten da, asko! Ez dogu —esate baterako—, ikusten zenbat guzur aundi, zenbat maltzurkeri darabilan politika munduak? Maltzurkeri orrek Jaungoikoaren legearen kontra doaz.

Agindu onen kontra doan pekatuak, beste aginduen kontra doan pekatuak baiño eskabide aundiagoak daukoz. Zortzigarren aginduaren kontra doan pekatua autortzagaz bakarrik ez da parkatuten, autortzaren ostean, kendu dan fama ona edo guzurrezko-ekiña... ordaindu egin bear da. Ta, irakurle, azkenengo biar au ez da aiiñ erreza gero!... Batez be "aize aundia" badabil... Zortzigarren agindua eraspén edo esijentzi aundiko agindua da.

## 2.—Nundik dator, ba, murmuraziñua?

Sor-leku asko daukoz pekatu onek, baiña sorlekurik ugarietak "arrokeria" ta "begi-luzetasun edo inbidia" dirala esango neuke.

Gizon guztiok daroagu geure burua, geure personalidadea gora —askotan goregi— altsateko kaidea. Egia esan, kaide au askotan gauz ona da. Askotan burua gora jasoten jakin bear da. Baiña beste askotan —geinetan— burua makurtuten jakin bear da, batez be norberaren arrokeriak edo inbidia lagun-urkoaren fama ona edo birtuteen bat iruntsi gura dabenean. Egia esan bear bada, askotan, asko koskaten da lagun-urkoaren gauz onak txalotuten; eta txalotu bearrean, tristetu egiten dira; eta ez tristetu bakarrik, tristetu ta lagun-urkoaren kontra "muru-murruka" asi. Norberaren antzekoak norbera aurkituten dan to-

gian baiño gorago ikusteak min emoten dau askotan. Zenbat bidar gertatu oi da norbera ainbeste urteetan gauz bat edo titulu bat, edo nobio bat idoroten ibilli dan bitartean, beste batek, oster, gauz ori, edo titulu ori, edo ofizio ori, edo emazteagai ori guk baiño ariñago idorotea! Zenbat bidar entzun oi da, esate baterako, eurenzat "apropoz fabrikatutako mutiltxu bat" topaten ibilli dirau emakumeen tartean: —"Gizajoa, ez daki noregaz ezkontuten da!... Amar nobio euki dauz, eta... danak itxi dabe bertan-bera!... Azkanian orregaz... Pena emoten deust mutiltxu orrek!..." Eta au esaten dagoana (bear bada eleizatik urten da arakoan izango zan autu au!...), inbidia arrak jota dago! Berak beste lortu ez daualako! Tripak jaten dago! Baiña, zoritxarrez, apur bat nazaituteko "muru-murruka" asi bear dau, beste-l... Zoritxarreko murru-murrua; zoritxarreko ekiña!... Ta, zer? Norberaren arrokeri ta inbidia dala ta ezjala lagun-urkoaren kontra beti ekiñean dabilzanengandik, zer itxaron lei Eleizak, gizarteak, KRISTO-K?...

## 3.—Ta, gero, zer? Gero: ekin, ekin... eta ekin!

Ta, gero, zer? Ekin!... Gero, "inbentore" asko gure errietan! Ekiñalan ibiltea gauza motza da, batez be kristiñauen tartean; baiña ez da asko obeagoa lagun-urkoaren kontra ekiñean erabilteko gaia "inbentate". Ta ez uste izan biar au aiiñ gatxa danik!... Norbera konturatu bage eldu daiteke arlo orretara. Begira zelan izaten da lengo, norberak ikusi dauana esaten jako laguntxu bateri, inori ez ezateko galozoagaz. Onek, beste bateri esaten deutso, iñori ez esateko aginduagaz eta zeozer geituegaz. Onek beste bateri... Ta azkenian, zer?

Albiste barria, guzurrezko albistea, iñoz sortu ez dan albistea! Norbera konturatu bage lagun-urkoaren entzute ona galdu.

Au pekatua da, irakurle, pekatu aundia! Eta ezin daiteke parkatu kendu dan fama ona emon baiño len.

Ez daigun pentsatu, ba, zortzigarren agindua edozelako kontseju bat danik, ez! Ez gaitezen begi-luzeak (inbidosuak) izan. Ez gaitezan arroak izan! Ikasi daigun lagun-urkoaren ona begi onez ikusten...

*Idoyaga-tar Xabier*



# Aita Imanol-ek

## Sierra Leonetik

### AGUR, OESTAFRIKA

Aprillek amasei. Arratsaldeko seirak Freetown-eko portuan.

Agur, Oestafrika! Agur lasterrarte!

Illabete gitxi barru, bertora etorriko gara euskaldun arraintzaleak osterabere. Aurtun, arrain asko atrapatu dogu; eta erakutsi galanta emon deustsagu Euskalerra osoari, emen atun asko dabillena eta euskaldun arraintzaleen etorkizuna negu sasoiari zati luze baterako aseguratuta dagoala. Aurtun ogetabat barku bakarrik etorri gara; datorren urtean, ez zaitez arritu, berrogeitik gora etorten bagara. Oestafrika da, oraindik aurrera, gure bigarren bizilekua. Bizileku luze ta zabala, Senegal-etik asita Guinea Española-erarte.

### AGUR, SIERRA LEONA

Agur urrengorarte, Sierra Leonako mendia!

Afrikako alderdi au, mendiz beterik dago. Lenengo aldiz Portugesak bertora etorri zireanean, Sierra Leona deitu eutsotzen. Freetown-eko mendiak legoi eder baten antza daukelako. Portugesak izan zirean Oestafrikako lenengo deskubridoreak. Amabost garren sekulutik amazpigarrenen arte, kasik eurak bakarrik ibiltzen zirean saldu eruzian kostalde guzti onetan. Orrexegaitik Sierra Leonaren antzera, itxasertzeko toki askok daroek oraindiño portugesez izenak; eta Freetown-eko baltzak oportu deituten deitsoe euren verbeta gizon zuriari, Europako lenengo zuriak Portugal-eko Oportotik etortzen zirealako.

### AGUR, FREETOWN

Agur lasterrarte, Freetown-eko erria!

Berton, ia danak dira baltzak. Tribu asko kotako baltzak. Nire etxeko koziñerua tribu batekoa zan, eta txoferra beste batekoa. Baltz zivilizatuak direan ezkerre, eureri ez jake gustetan tribu itza, eta beraren orden naziño itza usetan dabe. Naziño bakoitzak bere verbetea dauko; eta beste naziñoetakoak azkar ulertzeko, ingles mordoilloan verba egiten dabe. Ni ez nintzan eureri entenetako kapaz. Verba geinak inglesak dira, baiña asko aldatuak. Portugesez verbete bere erabiltzen ditue: "Mi non sabi" (nik ez dakit) esaten dabe, "I do not know" esan bearrean.

Naziño bakoitzekoeri igarri egiten jake arpegian. Besteen aldean, batzuk hitxura ederragoa dauke, finagoa, politagoa. Nire txoferra guztiz habilla zan, baltz guztien nazionalidadea arpez egagututeko. Bera mutil galanta zan; eta bere begitarrea baltz baltza izanarren, geurearen antzekoa zan. Gero jakin neban, bere naziñoa antigualako demporetan Nortafrikatik Sahara desertuan zear etorriko zuriakaz odolez baturu zala.



Oestafrika, euskaldun arraintzaleen bigarren bizilekua.

## AGUR, ANAIAK

Agur geroarte, Freetown-eko kristiñau anaiak!

Freetown-en, kristiñau asko bizi dira. Erriak, larogetamabost milla habitante dau-



Fausto Valencia, Lekeitioko arraintzale defuntuaren funeralak, Freetown-eko katedralean.

koz. Euretariko erdiak, kristiñauak dira; eta beste guztiak, mahometanoak. Baiña kristiñauen artean, gitxi dira katolikoak. Euneko amabi katoliko bakarrik, eta beste emparaduak protestanteak.

Oraintsurarte, Sierra Leonako ia eskola guztiak kristiñau misioneruen eskuetan egon dira; eta orrexegaitik, bertoko profesionalak eta gobernuko agintaririk geienak kristiñauak dira. Mahometanoak barriz, geien geienak analfabetuak dira.

Kristiñauak —katolikoak zein protestanteak— polito pratiketan dabe euren fedea. Domeketan, danak joaten dira eleizara guztiz ondo jantzita. Gu, arrituta geratuten ginean euren sombreroak eta jantzi ederrak ikustean. Ni, neure mezea Arraintzaleen Etxean emonda gero, katedralera joaten nintzan, meza nagusia entzuteko eta ango kantakaz eta ango sermoiazagaz neure biotza poztuteko. Fraille habitu barik joaten nintzan, azulez jantzita, egunaroko erropakaz, kurutze gorri bat mariñeran. Alako baten, neska gazte bat jezarri zan neure alboan, sombrero ta guzti, printzesa baten antzera jantzita; nok esango euken: enfermera simple bat zan; sarri askotan ikusten genduan alkar hospitalean; egia diñotsuet: lotsatu egin nintzan apurtxu bat neure jantziagaz, berak ezagutu ninduan. Urrengo domekatik aurrera, neubere jake eder bat eroaten asi nintzan. Alan da emengo bizimodua.

Urten dabe portutik banku guztiak. Pozik gatoz danok geure aberrirantz. Illuntze nabarrean, doi doi ikusten dira Sierra Leonako mendiak.

Agur, Oestafrika! Agur lasterrarte!

## 1962 POESIA SARIAK BERTSOLARIEN KLASEAN ARI DIRANENTZAT

*Gipuzkoako Aharro Kaza Probintzialak amar milla pezetako sari bat sortu dau urtero emoteko Euskaltzaindiaren ardurapean. "Lizardi" poesia-saria olerkariaren klasean ari diranentzat, eta lau poesia-sari bertsolarien klasekoentzat ornituko ditu.*

*Bertsolarien klasean ari diranentzat ipintzen diran poesia-sarian oiñarriak dira:*

a) Sariak izango dira: 1. Bi milla pezeta; 2. Milla ta bosteun pezeta; 3. Milla pezeta; 4. Bosteun pezeta.

b) Urtearen barruan argitaratutako bertso-paperik onenak sarituko dira. Bertso-paper inprimatuaren amar ale bialdu bear dira Euskaltzaindira. (Ribera, 6 - Bilbao). Bialtzeko epea 1962 azaroaren 29-an bukatzen da.

d) Gaia libre.

e) Bertso-papera argitaratzen danean, eta jakiteko zein dan bertsolari egilearen izena, "Bertso berriyak urliyak jarriyak" edo beste alako zerbait ipiñi bear da aspaldiko oiturari segituaz.

f) Juzgua emango duen juradua Gipuzkoako Aharro Kaza Probintzialak izendatuko du Euskaltzaindiaren eskabidez.

g) Sariak Donostian emongo dira bertsolarien jai edo txapelketa batean.



## Moscu eta Pekin, alkartuta

### 1.—MOSCU ETA PEKIN ALKARTUTA

Gertakizun aundia komunistarentzat: Moscu-k eta Pekin-ek eskua emon dabe. Alkartasun onen susterra: Txinaren bizi-eziña. URS-tik azkatua izan danetik, ikaragarriko problemakaz arkitu da. Ona emen batzuk:

- 1.—Nekazaritzaren ondapena. Makiñarik ez, euririk ez ta ogirik ez.
- 2.—Industriaren ezereza. Ainbeste milla gizon fabriketatik atereak eta baserrietan ipiñiak izan dira. 3.000 tekniku biurtu ziran Rusia-ra Pekin-ek Moscu-gaz apurtu ebanean. Ordurik ona Txina gauza bat izan da: gosea. Bear bearrezkoa iako Txina-ri erbesteko laguntza. Laguntza au, oraindiño ezin leike topau URS-en ezpada. Mao-tse-tung-ek Kremlin-en burua makurtu dau. Ez ori bakarrik: eskean joan da.

Londres-ko Times periodikuak lenengo orrian ekarren: "Pekin-en apalkuntza ta sartaldearen betiko bildurra".

Yankitarren maltzurkeriak frutu ederra ekarri dau, baiña dana aizeak zabaldu. Bildurra iatorko barrero. Kremlin-ek barru-barruan daukon gauza da: batasunaren birtatez komunistaren paradisia etorriko dala.

Ona emen, Kruschew-ek XXII-garren baztar nagusian emon eban elburua: "danok batera".

### 2.—DE GAULLEN "EZETZA".

Franzi-ko Gobernua barriztatua izan da. Barriztasun onetan De Gaullek partidu

guztiak alde batera baztertu dauz. Obea dala, diño, libertadea gizon zentzudunaren eskuetan itxitea, partidu askoren izen aundi gordetzea baiño. Lenengo ministrotzat, oraindiño ez ezaguna dan Georges Pompidou izentatu dau. Gobernu barri onetan host katoliku aurkituten dira. Gizon oneek gauza bat ostenduten dabe: De Gaulle-gaz bat izatea. Orrexek eutsi dautso iru urte luzeetan. Gauza arrigarria benetan Frantzia.

Beste modu batera erantzun dabe oinperatuak izan diranak. Utsune ederra De Gaulle-ek egin dabena. Etorkizun garratzak izango lirakez, De Gaulle edozein gertakizun oker bategatik, menperatua izango balitz. Indar guztia komunistaren partiduak eukiko leuke. Partidu oneek indar bat egi ten ari dira. Euren asmoak:

- 1.—De Gaulle eta bere Gobernua menperatu.
- 2.—O.A.S. garbitu.
- 3.—Argelia-ren azkatasunetik jaioko diran etorkizunari arpegia emon. Bidault dau gauzak naaztu dabezan burua.

### 3.—BUENOS AIRES GORIGORI

Ezta baketu Argentina-ko naste-borras-tea. Ejerzituko batasuna apurtuta dago: Rauch Poggi-ren kontra altsa da. "Peronismuagaz edo geugaz amaitu bear da", esan dau. Frondizi-k, barritz, ejerzituaren eskue- tan Peronismua garbituteko eskubidea, ez dagola diño. Guido-k, legepean badabil, ezin dau Peron-en gainean erabakirik artu. Dana dala, gauzak geroago ta txarrago dabiliz, ta ez da erreza arerioak dakarren indar guztia ezereztutea. Izan leiteke eurak leku- rik ederrenak iruntzitea. 43 diputadu ta 11 gobernadore dira. Ta ez ori bakarrik: mar- tiaren 18-ko elezioak eurak irabazi ebezan. Peron-en poza ezagugarria da. Buenos Aires-en bertan erriak sarritan goratu dau. Berak esan daben legez: "Astoaren adar- kasoagatik ez dogu aurten presidente izateko era galduko".

# Izkiri- Miriak

## IKASTOLAK ETA EUSKEREA

"Erriko-eskolak" eta euskerea, eztira izan eta gaur be eztira lagun aundiak. Ikaski-zunak erderaz emoten diralez eta ikasleak erderaz ezpadakie edo euskaldunak utsak badira...! Orra or naaste galanta!

Ikasleak ezin aitu irakasleak diñoena ta irakaslaria naimen onekoa izanda ta alegin guztiak eginda be, ikaslien artean, aurrerapen aundirik ez dau ikusiko.

Gai onetan, diñotena egiztau eta baiez-tuteko, uste dot jazoriko batzuk egoki da-tozela.

Askotxok ezagutuko dabe aurretik idat-zita doiana. Baña... danak eztabe jakingo Azkue jaunak (erdi gure erritara bera) le-nengoz edestu ebana.

Ara emen zelan jazo zan :

"Maixua, Kristiñau Ikasbide"ko ikasgaia azaltzen asi zan eta mutiko bateri Jaun-goikoaren legeko lenengo agindua zein zan itaundu eutsan. Mutillak erantzun eutsan: "Amar a Dios sobre todas las cosas". Orduan maixuak, euskeraz zeozer ba-ekialez eta mutiltxoak ulertu baeban jakin gura-rik, esan eutsan euskeraz: "Ondo dago, ba-ña... esaidazu orain euskeraz zer esan gura dauan erderaz emon dozun erantzunak.

Mutillak "trankil" jaurti eban erantzunana: "Jaungoikoari amarrateko soka guz-tiekaz".

Etā nasai gelditu zan.

## BESTE BAT

Arratsaldeko ordubata zan. Jontxu'n etxeakoak estu ta larri egozen; jan orduan mutilla oindiño bazkaltzera etorri barik,

arazo ori goizetik beteten oituta zegoen ba-ña.

Alako baten mutiko ori agertu zan eta amak berealaxe ta asarrez esan eutsan:

—Txotxo! Ez ete dakizu gure etxean baz-karia ze ordutan jaten dogun? Oñarte non egon zara?

Jontxuk apal-apal (bera dalez) erantzun eutsan: —Ikastolan, ama.

—Ikastolan? Amabietan eztozue urteten ba...? edo? Kastigeta egon zara?

—Bai, ama, kastigeta egon naz.

—Kastigeta? Baña zegaitik? Ezbearren bat egingo zenduan edo zer eztozu jakin?

—Berbuak, ama.

—Zorioneko "berbuak". Ze berbo edo ze "traste" izan da ba jakin eztozuma?

—Ara, ama, berbo "ir": yo voy, tu vie-nes, el va, nosotros venimos... ellos van... Batzuk "juan", beste batzuk "etorri", ar-maten jast naste itzela buruan eta ezin ar-gitu...

Jontxun etxean gertatu zana, euren au-zoko Pantxikek entzun ebanean, barreari emon eutsan ederto ta gero gogoratu ja-kon, irurogetaz urteak lenago berari ger-tatua ta asi zan edesten, zelan egon zan ara be kastigeta; amak itaundu eutsa-nean ze "berbo" ez eban jakin, erantzun eutsan: Berbo "amar": yo amo, tu amas...

Amak ez eutsan itxi aldi ori amaituten.

Asi jakon aldarrika: —Ixil, alabatxu, egon zaitez ixilik. Eta egizu mesedez esko-lara zoazenean maistrari esatija, orreik zan-tarkeriak eskoletan ez irakasteko.

## BESTE BAT, BAÑA AU EZTA IKASTO-LETAKOA GURE ERRIAN JAZORIKOA BAÑO

"Mercedes" ogei urtedun neskato lirain guztiz azkar eta buru argikoa zan. "Ger-gori" bere iñude edo aña, berrogetamar in-guru urteko andra zur eta bizkorra. Baña akats bat eukan. Etxekian irakurten ez idazten. Egun batean joan zan Gergori bere bularreko alabatxoagana ta esan eutsan:

—Mertxetxu guria, egingostazu mesedetxu' bat?

—Bai, andria, —erantzun eutsan neska-toak— al badot bai beintzat.

—Ara; ba-dakizu idazten eztakitela ta gogoratu jatelez, Kose nire gizonari eskutitz (kartatxu) bat bialdutea; zuk idatzi bear deustazu.

—Bai, Gergori; zelan ez! Pozik idatziko deusat.

Emon eutsan Gergorik neskatilleari ingi, idatzazal. idazkortz eta idazteko bear diran tramankulu guztiak eta bere alboan jezarrri zan.

Asi zan gure Mercedes "karta" ori idaz-

ten. Zer esanik eztago, erderaz, ta idazten zegoan bitartean abots senduagaz yoyan esaten:

"Mundaca 25 de Febrero de 1955. Querido José....."


Gergorik entzun ebanean "querido", tximista baño ariñago altza zan jezarrita egoan tokitik eta neska gajoari asi jakon aldarrrika:

"Zeeer?! queridooo?! Egixu mesedez ori "queridu" ori kendutia!!

"Kose ezta "querido"! Neure senarra baño!"

Maiuru

# ZINEMATOGRAFIA



## Utsume bat

Umeentzako ziñerik ez daukagu. Zer dala-ta? Ez, ba, jakin.

Alde onetatik beñepein, baztertuta daukaguz gure umeak. Eta umeak ez dira gizadiaren parte bat soillik, jaikitzen dagoan jizadi barria baiño.

Umeak be, ba-dau bere mundua, bere amets, eta bere izakera apartekoa. Edadekoen jatena ezin daikete ondo iruntsi. Bearezkoa da eurentzat bakarrik egindako ziñeak umeeri emotea; emotekotan beñepein. Baiña, oraindiño ez daukagu ezertxo be sail onetan.

Amar urte luzeetan egon da emon bage umeen ziñearen Benezia-ko Sari Nagusia. Azkenik René Cardona-ren "Pulgarzito-k" eroan dau.

Eta utsune au ba-da naiko kaltegarri, eta baita be, ainbat gurasoentzak buruauste iturri. Tristeia benetan domeka arratsalde alai bat umeeri aukeratu eziña. Eta gero askotan jazoten dana: ezkutuka ezkutuka edozein ziñera, edadekoen tartean barrura, edo urteak luzatu eta kito. Gazteok eta zarrrok, danok dakigu au zelan dan eta onelako aziketak nora daroazan gure semeak.

Euren pentsa moldaz egiñiko ziñeak; eta eurentzako bakarrik emondakoak. Zer ziñe ona izan arren, ikusle naustuen egiketa ta egoera lotsabageak ikusi bear baditue?

Ona emen utsune bat. Aguro bete bear ützekean utsunea. Iñoiz izan badira, gaur ra ziñe-gose gure umeak.

Bitartean, ainbat guraso zintzo semeen egurri ori zelan ase ez dakiela, eta beste ainbat euren semeen txarkerien errudun.

Arriola